

KOLON-I



Izen andiko ichas gizon bat
kantuz nai nuke argitu,
zeiñak ez duben mundu guztiyan
bera lakorik arkitu,
biyotz noble ta buruz argia
jendiak ditu arritu,
ematen zaizkan fama guztiyak
oraindik diña ez ditu.

Erbestekoa¹ izanagatik
España du maitatzen,
eta guretzat mundu berriyak
azkar dijua billatzen;
konbentu baten bi adiskide
Jaunak diozka agertzen,
eta aiekin grazi andiyak
ditu Kolonek logratzen.

Uste gabetan nonbratu det nik
Kristobal Kolon andiya,
Erregiñ bikaiñ Isabelentzat
Jaun bat chit gustagarriya;
Ama Birjiña Rabidakoak
emango diyo graziya,
bera dalako Ichas-gizonen
Izar eder pozgarriya.

(1) Extranjero.

Aita Marchenak eta Mendozak
 beti ziyoten lagundu
 Kolon jaunari bere lanetan,
 bai eta lorez apaindu;
 Amerikako lan andi artan
 etziraden lo egondu,
 bi fraile aien jakinduria
 ¿nork baitek nai du umildu?

Kristobal Kolon larri zanian
 ¿nork eman ziyon indarra?
 ¿Ta zeintzuk zuben beti legortzen
 bere begiyen negarra?
 ¿Etzuan esan bazedukala
 bi fraile aien bearra
 ta nai zuala jarraitu leyal
 jakintsu aien dedarra?

Asko kosta zan araututzea¹
 Almirantearen plana,
 bañan eskerrak Jaungoikoari
 moldatu zuan ark lana;
 Auguztuaren goiz eder baten
 bildurik zeguan dana,
 mariñel denak zar eta gazte
 arturikan arraun bana.

Palos ko Portu ezkutatuba
 ¿etzerade zu choratzen?
 ¿ez aldakizu egun onetan
 zerdan zurekin gertatzen?
 Aleman, Ruso, ta Italiako
 jendiak zaitu aichatzen,
 dierri² denak ari dirade
 zure gloriyak kantatzen.

(1) Arreglar.

(2) Nación.

Eun da ogei gizon... dijoaz...
Itsas zabalen gañian,
boa, boaka, bultza, ta amilka,
iya galtzeko zoriyan;
Izar ederra deitzen zaituzte
Mariñel denak batian,
Ama Birjiña Rabidakoa
dardaraz... ezpain artian.

Egunak jua ta gaubak igaro
ujol asarre tartian,
zalapartaka ontzi gajuak
iya ondatu naiyan,
emen aiziak, andik enbatak
elkar burruka gorrian
bi illabete pasa ziran ta...
guziak zeuden ansian...

Pilareko Birjiña ederra
egun chit maitagarriya,
Kolon, Pinzon ta Marchenarentzat
guztizko zoragarriya;
Españatarrenetsaiarentzat
itzal ta beldurgarriya,
Franzes, Ingles ta Portugesenizat
illun, beltz... negargarriya.

Kristobal Kolon Almirantea
¿Zer dezu zure buruan?
¿Etzaude ongi lagun oiekiñ
agertu dezun munduan?
¿Agintaritza guzi guziak
ez aldituzu eskuan?
Esan zaidazu ¿zer pasatzen da
zure biyotzen barruan?

Irten zan Kolon bere Ontzitik
janzirik manto ederra,

esku batian bere ezpata
bestian berriz bandera,
bere belaunak dijuaz laister
mundu berriko lurrera,
atozte esanik jende aiei,
Españiaren mendera.

Bere ondoren jeichi ziraden
Pinzon ta gañerakuak,
bañan Kolonek bakar bakarrik
isurtzen ditu malkuak:
¿ote ziraden penazko negar
edo atsegiñezkuak?
Onen gañian itz egin beze
Errege Katolikuak.

Ama Birjiñak lagun ziyola
Koloni jornada artan
argiratzen du Kristobal jaunak
beraren izkribuetan.
Mundo berriko jabe-egin zala
festa Pilareko bertan
denak dakite andi ta chiki
baserri eta kaletan.

Egun batian itz egin ziyon
Santiagori Mariyak
Españiaruntz eldu zirala
Jesukristoren graziyak:
¿Ederkiyago noiz bete ziran
promes ain zoragarriyak
baizik Kolonek Isabelentzat
billaturikan Indiyak?

Jarri zitzaion ugarte¹ ari
San Salvador-en izena

(1) Isla.

Kristobalentsat Jauna onratzia
zalako lanik lenena,
bigarrenakiñ etzan ez aztu
Maria Kontzezirena,
irugarren ta laugarrenari
Fernando t' Isabelena.

San Franziskoren seme leial au
dago bai pozez beterik,
orrela bizi danarentzako
ez du tristurak indarrrik:
naiz eta kontra jaiki odei beltz
denak gogorki bildurik
Irugarrenko ordenakuak
ez du galdutzen pakerik.

Oroimengarri aurtengo onetan
zure gloriyak kantatzen
Franziskanua naizan aldetik
beñ ere ez naiz aspertzen,
zure izenak nere biyotza
zorionez du betetzen
ta nere anaia guzi guziak
nerekiñ dira alaitzen.

Gloriyak Pinzon ta Aita Marchena,
gloriyak Kolon jaunari,
gloriyak Aita Mendoza eta
Isabel Erregiñari,
gloriyak Huelva, Palos, Rabida
ta ango konbentuari,
gloriyak milla gu jao giñan
dierr¹ Españiari.

Amabost-garren gizaldi arrek
¿zer ote zuan naiyago?

(1) Nación.

orduko fede ta esperantza
 orain, jendiak, ¿nun dago?
 Ill zan... Kolon ta munduak dute
 martiri bat guchiyago,
 beragatikan gizon guziak
 mundu berri bat geiyago.

FR. DANIEL BAERTEL.

VARIEDADES EUSKARAS

H E R N I O

Entre las altas montañas de nuestra hermosa provincia que se distinguen por su gran elevación y atraen á los aficionados á disfrutar del bello panorama que de su cumbre se ve en perspectiva, se cuenta el monte de Hernio, situado en el centro de Guipúzcoa.

Ménos alto que Aitzgorri, Gorbea y Aralar es visitado como aquellos durante el estío por cuadrillas de romeros y turistas que gustan de hacer expediciones al campo.

Por lo general los que de San Sebastian ó Tolosa se dirigen á dicho sitio, emprenden la marcha á pié desde este último pueblo, por un camino que parte desde los arrabales de la población y que pasa por Choritoquieta, dejando á mano derecha el pueblecito de Hernialde.

La cuesta que hay que subir en un principio es muy pendiente y se hace un tanto penosa la marcha hasta llegar á divisar la cumbre del Hernio por un lado, y por el otro como cinta de plata, la carretera que va de Tolosa á Azpeitia y los pueblos de Vidania, Goyaz, Réjil y Loyola.